


BALIO PROPOSAMENA

Gu Jon, Magali, Nahia eta Nadia gara eta HaziBizi enpresa sortu dugu. Gure enpresaren helburua belaunaldi ezberdinetako komunitate bizia eta solidarioa sortzea da, non gazteak eta adinekoak elkarrekin bizi dira eta elkar laguntza, zaintza eta ikaskuntza sustatzen diren. Komunitate hau ez da etxebizitza soil bat, bizimodu berri baten proposamena baizik: jasangarria, solidarioa eta gizatiarra. Hasieran komunitate bat izango da, etorkizunari begira eraikinak sortuko ditugu.

Hau da gure etorkizuneko eraikina:



Gure proiektua 35 urte baino gazteagoak diren pertsonentzat eta 65 urte baino zaharragoak direnentzat dago pentsatuta.

Idea honen atzean bi egoera nagusi daude:

- Alde batetik, gazte askok zailtasun handiak dituzte gaur egun etxebizitza bat aurkitzeko.
- Bestetik, adineko askok bakardadea eta isolamendua pairatzen dute.

Horregatik, gure komunitatean belaunaldi desberdinak elkarrekin bizi dira eta elkarri laguntzen diote. Gazteek aukera dute etxebizitza merkeago eta duin batean bizitzeko, eta adinekoek konpainia eta babesa aurkitzen dute, bizitza sozial aktiboa mantenduz.



Belaunaldi arteko harremanak sendotzea eta ongizate partekatua lortzea da gure enpresaren asmoa. Horretarako, komunitate ireki bat sortu dugu, bertan bizilagunak ez dira soilik auzokideak, elkarri laguntzen dioten pertsonak dira.

Komunitatearen barruan jarduera ugari antolatzen dira:

- jolasak
- tailerrak
- ikastaroak
- aisialdirako ekintzak

Elkar hobeto ezagutzea eta giro positiboa sortzea da helburua.

Gainera, gure lana ez da amaitzen etxebizitzak eraikitzean, enpresak komunitatearen jarraipena egiten du, jarraipena honen bitartez gure soldata kobratzen dugu.

- Biztanleekin harremana mantentzen dugu.
- Jarduerak antolatzen ditugu. Honetarako, ordutegi bat antolatu dugu.
- Behar dutenean, laguntza eskaintzen diegu.
- Elkar bizitzarako, hainbat arau ezarriko ditugu.

Horrek guztiak gure proiektua beste enpresetatik bereizten du, izan ere, guk bizimodu eredugarri eta kolektibo bat proposatzen dugu.

Gure enpresa berezia da, ez duelako soilik etxebizitza bat eskaintzen, bizi-modu oso bat baizik. Komunitatea energia berriztagarriak erabiliz kudeatzen da, adibidez eguzki-plaken bidez, eta ingurumenarekiko errespetua oinarri du. Horrez gain, teknologia berriak erabiltzen ditugu energia aurrezteko eta kostuak murrizteko. Gure komunitateak jasangarritasunaren eta elkartasunaren adibide dira: ingurumenarekiko arduratsuak, sozialki konprometituak eta ekonomikoki bidezkoak.



Gure lan berdina egiten duten hainbat enpresa daude Espainian zehar. Adibidez, Municipal Project for Intergenerational Housing and Community Services in Alicante, Sostre Cívico edo LLars Compartides hauetako batzuk dira. Proiektu hauen helburua da bakardadea, etxebizitza falta eta gizarte-isolamendua murriztea, eta elkarren arteko laguntza eta harremanak sustatzea. Gurean, aldiz, parte-hartzaile aktiboak dira, komunitateko bizitzan eta erabakietan inplikaturak.

Gure enpresa ekimen pribatua eta soziala da, eta elkarbizitza ulertzeko modu zabalago eta modernoagoa proposatzen du. Ez dugu etxebizitza partekatua bakarrik eskaintzen: komunitate bizia, jasangarria eta parte-hartzailea eraiki nahi dugu. Kudeaketa gure enpresak egiten du, ez erakunde publiko batek. Horregatik, guk antolatzen ditugu jarduerak komunitatearen jarraipena eta elkarbizitzari lotutako beharrak. Gainera, energia berri-energiak eta teknologia berriak erabiltzen ditugu eguneroko bizitza errazteko eta ingurumenarekiko errespetua bermatzeko. Laburbilduz, gure enpresak ikuspegi berriagoa eta pertsonalago bat eskaintzen du, bizilagunek beraiek ere komunitatearen parte aktibo izatea bilatzen dutena.

Azken batean, Alikanteko proiektua esperientzia publiko arrakastatsu bat da, eta gure enpresa horren antzeko baloreak partekatzen dituen eredu sozial eta jasangarri pribatua da.

Guretzat, garapen Jasangarriko Helburuak betetzea oso garrantzitsua da, helburu hauek pertsonen ongizatea eta berdintasuna sustatzen dituztelako. Gainera, gizarte hobea eta jasangarriagoa eraikitzen laguntze dute, bai gaur egungo pertsonentzat bai etorkizunekoentzat.



Guztionez eta adin guztietan bizimodu osasungarria bermatzea eta ongizatea sustatzea du helburu.

Guztionez eta adin guztietan bizimodu osasungarria eta ongizatea sustatzea gure proiektuaren oinarrietako bat da, gazteen eta helduen bizi-kalitatea hobetzea helburu duena. Gazteen kasuan, etxebizitza eskuratzen laguntzen diegu, haien egonkortasunerako. Era berean, adinekoengan haien ongizate emozionala eta psikologikoa bultzatzen dugu, bakardadea osasun mentalean eragin negatiboa duelako.



Genero-berdintasuna lortzea eta emakume nahiz neskato guztiak ahalduntzea.

Gure enpresan genero-berdintasuna sustatzen dugu. Horregatik, komunitatean emakume eta gizon kopuru bera egongo da, %50 eta %50. Horrela, komunitate misto bat sortzen dugu, non pertsona guztiek aukera eta tratu bera duten.



Energia eskuragarria, fidagarria, jasagarria eta modernoa bermatzea guztiontzat. Gure enpresak 7. helburua betetzen du, komunitatean energia berriztagarriak eta eraginkorrak erabiltzen ditu, adibidez, eguzki-plakak eta kontsumo arduratsua sustatuz. Energia modu arduratsuan erabiltzeko arauak ezarri egingo dira, eta arauak betetzen ez dituztenek komunitatetik kanporatuak izan daitezke.



Hiriak eta giza kokaguneak inklusiboak, seguruak, erresilienteak eta jasagarriak izatea lortzea. Gure enpresak gazteak eta adinekoak elkarrekin bizi diren komunitate inklusibo, segurua eta jasagarria sortzen du. Horrela, gazteek etxebizitza merkeagoa dute eta adinekoek bakardadea saihesten dute. Jarduerak eta tailerrak parte-hartzea eta giro ona sustatzen dute, eta energia berriztagarriak eta teknologia erabiliz ingurumenarekiko errespetua bermatzen da.